



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN (BBUP) GALINDOKO HUA APARRAREN KONTRAKO PRODUKTUAZ HORNITZEA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZENBAKIA:3164

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Koldo Lekue Marcos
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN (BBUP) GALINDOKO HUA APARRAREN KONTRAKO PRODUKTUAZ HORNITZEA
2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Aparraren kontrako produktuaz hornitzea Galindoko HUA, azken isurketan aparrak kentzeko.
3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Hornidura hori ezin da lotetan banatu, horniduraren xedea produktu bakar bat baita.
4.- CPV: CPV kodea:33696300-8 Deskribapena: Erreaktibo kimikoak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez dagokio
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)	LAUROGEITA HAMABI MILA LAUREHUN (92.400,00) EURO
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 184.800,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 2025a 22.113.169.22 partida 38.500,00 euro (BEZa kanpo utzita) 2026a 22.113.169.22 partida 53.900,00 euro (BEZa kanpo utzita)	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiria. PTPAko 3. apartatuan adierazitakoaren arabera ordainduak.	
8.- Konturako ordainketak: Ez.	

D.- KONTRATUAREN EPEA	
1.- Iraupen osoa	URTEBETE (1)
2.- Epe partzialak.	☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena	☒ BAI ☐ EZ URTEBETE (1).
4.- Bermealdia: gutxienez sei hilabetekoa izango da, jasotzen denetik zenbatzen hasita; fabrikazio- eta garraio-akatsei egozteko moduko itzulketa- eta itzultze-gastuak adjudikaziodunaren kontura izango dira.	
5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Galindoko HUA, Sestaoko udal-mugartea.	
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.	

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko zenbatekoa halako bat izan beharko da gutxienez. (92.400,00 euro).

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

1. Lizitazio honetara aurkezteko, ezinbestekoa izango da esperientzia izatea izaera berdineko zerbitzuen exekuzioan. Horretarako, honako ezaugarri hauek dituzten exekuzio-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:
 - a. Gutxienezko zenbatekoa: (2020-2024) urteetan kontratuetan izandako esperientzia justifikatu beharko da, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70eko gutxienezko zenbatekorako.
 - b. Lehen aipatutako gutxienezko zenbatekoa justifikatzeko, hiru ziurtagiri aurkeztu beharko dira gehienez, eta horien zenbateko erantsiek adierazitako gutxienezko gainditu beharko dute urtebeteko epean.
 - c. Ulertuko da urte anitzeko kontratuak modu uniformean exekutatu direla kontratuaren iraundian, non eta ez den kontrakoa berariaz egiaztatzen.
 - d. Ziurtagiri bakoitzak argi eta garbi identifikatu beharko du nork eta zer erakundek ematen duen, eta zigilua eta sinadura izan beharko ditu.
2. Instalazio teknikoak fabrikazio-prozesuekin lotuta deskribatzea, fabrikatzailearen titulartasuna, ekoizpen-zentroak, ekoizpen-ahalmena eta biltegiatze-deposituak, entrega-punturainoko garraioa eta produktuen kalitatea bermatzeko erabilitako neurriak egiaztatuta. Produktuaren fabrikatzailearekiko konpromiso-gutuna, kontratua exekutatzen den denbora osoan.
3. Egiaztatzeko produktua eraginkorra dela Galindoko HUAko azken efluentean aparrak kentzeko (betiere, haren kalitatea aldatu gabe eta ibilguan bestelako aldaketarik eragin gabe –usainak, orban ikusgarriak ibaian, etab.–), Galindoko HUA n egindako proba industrial baten efikazia frogatu beharko da, PTPAn adierazitako kondizioetan.
4. Hornitu beharreko produktuen dokumentazio teknikoa, PTPAren 2. apartatuan adierazitakoaren arabera, zehaztapen teknikoak barne hartuta, non bermatutako parametroen balioak adieraziko baitira, eta PTPAren 2.1 apartatuan ezarritakoa bete beharko dute parametrook. Informazio horrek guztiak kontratu-izaera izango du, eta PTPA n jasotako zehaztapen guztiak jasotzen ez dituzten eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuko dira. Hornitutako produktu-lote bakoitzari erantsiko zaizkion analisi-ziurtagiriak eta zehaztapenen adostasun-ziurtagiriak adibidea gehitu beharko da. Orobat, eskaintako produktua biltegiatzeko kondizioak eta, beharrezkoa izanez gero, irabiatze- edo birzirkulazio-eskakizunak ere adierazi egin beharko dira.
5. Fabrikatzailearen –eta, beste enpresa bat izanez gero, banatzailearen– kalitatea ziurtatzeko sistemaren egiaztatzea.
6. Produktuen segurtasun-orriak, informazio toxikologikoa. REACH Erregelamendua betetzen delako frogagarria.
7. Fabrikatzailearen analisi-buletina, zehaztapenetan eskatutako parametroen balioak jasotzen dituen, irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan definitutako alkilfenol etoxilatuen (APEak, ingelesezko siglengatik) eta lehentasunezko substantzien salbuespena barne hartuta.
8. Laborategiren bat –nola bertakoa hala kanpoko– eskuragarri duelako egiaztatzea eta emaitzak lortzeko epeak.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.



H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Ez da aplikagarria

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Aparraren kontrako produktu eskainiaren prezio unitarioa erantsi beharko da (€/kg produktu).

Kodea	Izena	Prezioa (€/kg)
1.1	Aparraren kontrako produktua Galindoko HUArako (zisterna)	
1.2	Aparraren kontrako produktua Galindoko HUArako (1000 litrotarako edukiontzia)	

Neurketak eta kontratuaren aurrekontua:

Kodea	Izena	Neurketa (kg)	Prezioa (€/kg)	Zenbatekoa (€)
1.1	Aparraren kontrako produktua Galindoko HUArako (zisterna)	56.000		
1.2	Aparraren kontrako produktua Galindoko HUArako (1000 litrotarako edukiontzia)	4.000		
			GUZTIRA	

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Kontratua adjudikatuko zaio, prozedura ireki bidez, eskaintzarik txikiena aurkezten duen lizitatzailerari; izan ere, eman beharreko horniduraren ezaugarriengatik, adjudikazioa erabakitzen duen irizpide bakarra da.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Ez dagokio.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

Ondorengo zigorrak aplikatu ahalko dira, eta berehala aplikatu egingo dira, haien zenbatekoa ordaintzeko gelditzen den lehen fakturatik kenduz, edo, hala badagokio, azken likidazioan edo aurkeztutako behin betiko bermearen kontura.

Kaudimen teknikoaren 3. puntua ez betetzearen ondoriozkoak

Proba industrialetan hiru produktu desberdinekin ez-betetzeak gertatuz gero, kontratua deuseztatu egingo da.

Pisaketa-kontrolaren ondoriozkoak

BBUPek egindako pisaketa —PTPAren 2,5. apartatuan adierazitakoaren arabera— hornitzaileak eskainitakoa baino txikiagoa bada eta bien arteko aldea hornitzailearen pisaketaren ehuneko hirutik gorakoa bada, apartatu honetan azaldutako zigorra aplikatuko da.

Aipatutako tolerantzia gainditutako bidalketa bakoitzerako kalkulatu da, formula honen bitartez:

$$S_1 = 1,1 \times \frac{a}{100} \times Q \times P_n$$

non:

S1 = bidalketari dagokion zehapenaren zenbatekoa.

a = hornitzailearen pisaketaren arteko aldearen ehunekoa, kontuan hartuta haren pisatze-ticketa eta albarana eta BBUPek egindako kontrolean eskuratutakoa.

Q = sartutakoaren pisua kilogramotan, entrega-albaranaren arabera.

Pn = aplikatu beharreko kilogramoko pisua; haren balioa prezio unitarioen zerrendan ezarrita dago.

Kalitate-kontrolaren ondoriozkoak

Kontrol-parametrorako gehieneko tolerantzia gainditu dela antzemandako bidalketa bakoitzerako kalkulatu da, formula honen bitartez:

$$S_2 = 1,5 \times \frac{b}{100} \times Q \times P_n$$

non:

S2 = bidalketari dagokion zehapenaren zenbatekoa.

b = kalitate-parametroaren gutxieneko balio onargarriaren (balio nominala ken tolerantzia) eta analisisian lortutako balioaren arteko ehuneko aldea.

Q = entregaren pisua kilogramotan, entrega-albaranaren arabera.

Pn = aplikatu beharreko kilogramoko pisua; haren balioa prezio unitarioen zerrendan ezarrita dago.

Entrega-epea ez betetzearen ondoriozkoak

Ezarritako entregatzeko epea bete ezean, hornitzaileari egozteko moduko arrazoiengatik, betiere horrek badakar instalazioaren ohiko funtzionamendua oztopatzea, hornitzaileari zehapena ezarriko zaio, atzeratutako bidalketari dagokion zenbatekoaren % 25ekoa.

Entregatzeko epea ez betetzea berriz gertatzen bada, hornitzaileari egozteko moduko arrazoiengatik, nahiz eta atzerapenak instalazioaren funtzionamenduan eraginik ez duen, zehapen gehigarria ezarriko zaio hornitzaileari, lehengoaren osteko bidalketa atzeratuei dagokien zenbatekoaren % 15ekoa, eta horrez gain, BBUPek kontratua indargabetzeko arrazoa ere izan liteke.

Laguntza teknikoaren zerbitzua ez betetzearen ondoriozkoak

Eskainitako laguntza teknikoaren zerbitzua atzeratutako edo bete ez den egun bakoitzeko, 250 euroko zigorra jarriko da.



N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko asegurua dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ